



GIZA
LIBURUTEGIAK
2019

IKASTEKO AUKERA

Evelyn Brand

GIZA LIBURUTEGIAK 2019

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

Evelyn Brand eskertu nahi dugu Asociación Intercultural Cinco Estrellas elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Ikasteko aukera

Evelyn Fabiana Brand Uruguain jaio zen. 2003ko ekainean iritsi zen estatu espainiarrera eta, handik bi urtera, Donostiara. Migrazio-historia bat kontatu digu, baina kontakizun berezia da, izan ere, jaioterrian ikasketak egiteko aukera zabala izan zuenez (hiru karrera egin zituen), Evelynek uste du emigratio-prozesua errazagoa suertatu zaiola, aukera gehiago izan dituela eta etorkizuna arrakasta handiagoz eraiki ahal izan duela. Hona etorri ostean ere, ikasten jarraitu du. Horrexegatik, jaioterriko ikasketa-sistema ederto ezagutzen duelako eta ondo baino hobeto dakielako zein garrantzitsua den, sistema horri buruzkoak azaldu nahi dizkigu.

Hauxe da Uruguairen izen osoa: Uruguaiako Ekialdeko Errepublika. Herrialde txiki-txikia da (3 milioi lagun bizi dira han) eta Argentinaren eta Brasilen artean dago. Hegoaldean, La Plata ibaia eta Ozeano Atlantikoa ditu, horregatik, Uruguai gune garrantzitsua izan da beti kolonizazioaren eta merkataritzaren ikuspegitik.

1815. urteaz geroztik, José Gervasio Artigaren lema da nagusi herrialde honetan: "Ekialdekoak izan daitezela ausartak bezain ikasiak". Lema horrek hauspoa ematen zion jendeari, kolonizazioari aurre egiteko. Hain justu ere, Uruguain ez dago bertako biztanlerik; aitzitik, denak dira espainiarren eta italiarren ondorengoak, bai eta euskaldun eta galiziarrenak ere, asko. %4 baino ez da afrikar jatorrikoa.

Artigaren garaiaz geroztik, Uruguaiak gizarte-politika aurreratuak abiatu ditu hainbat alorretan: berdintasunean, gizartean eta kulturean, integrazioan... Adibidez, 1815ean independentzia lortu eta, berehala, emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuten,

1827an, eta 1830an konstituzioa idatzi zen. Hala ezarri ziren lurralde hartako herri askeetako jendearen eskubideak eta askatasuna.

Artigaren esaldiak hauxe esan nahi du: hezkuntzaren eta irakaskuntzaren bidez, herritarrak aske izango direla. Alegia, garrantzitsua da ikastea, inbaditzaileen mendean ezjakina ez izateko. Era berean, egoerak konpontzen jakin behar da, eta, aurrera ateratzeko, beharrezkoa da norberak lana egitea eta burujabe izatea. Horrek guztiak mesede egiten dio herrialde osoaren independentziari. Herritar guztiak badira burujabeak, burujabea izango da herrialdea ere.

Filosofia horren ondorio da hezkuntzan diru asko inbertitzeko kultura politikoa. Hezkuntza halako da Uruguain: laikoa, doakoa eta derrigorrezkoa. Laikoa: gizarte zibila eta gizarte erlijiosoa ondo banaturik daude (nahiz eta badagoen eskola erlijiosorik). Doakoa: hala, herritar guztiak dute hezkuntza jasotzeko aukera, beren jatorri edo maila ekonomikoaz harago. Hezkuntza guztiz doakoa da hiru urtetatik unibertsitatera arte. Derrigorrezkoa ere bada: guraso guztiak eraman behar dituzte beren haurrak eskolara, batez ere laguntzaren bat jasotzen baldin badute.

Hezkuntza baloreetan oinarritzen da, besteak beste, pertsonen segurtasun handiagoa lor dezaten eta izaki sozial gisa haz daitezten. Horretarako, metodologia berezi bat erabiltzen da: ikasleen eta irakasleen artean hartzen dira erabakiak, batzarren bidez, eta entzuketa da batzar horien oinarria.

Hezkuntza Garapeneko Planak. Plan horiei esker, teknologia ematen zaie ikasleei, hartara, haur guztiak eduki dezaten ordenagailu eramangarri bat, adibidez.

Unibertsitateko karrerak doakoak dira eta, unibertsitatean sartzeko, batxilergoa burutu beharra dago, zeina zorrotz samarra baita. Normalean, ikasleek, ikasteaz aparte, lan

egiten dute. Hala egin zuen Evelynek ere, izan ere, guraso gutxik ordaindu ditzakete-eta seme-alaben gastu guztiak haiek ikasi bitartean.

Hala ere, Evelynek esan digunez, dena ez da perfektua. Badira erronka batzuk: adibidez, jendeak jakin behar du zer ikasi nahi duen, bere onena eman behar du eta ikasketei eutsi behar dio. Ondorioz, hezkuntza doakoa izanda ere, eskolako garaia ondoan (16 urte inguru), ikasle batzuek hezkuntza uzten dute. Hortaz, eskola bertan behera uzteko joera murriztea, horixe da beste erronketako bat.

Eta beste bat: irakasleen soldata hobetzea, baxu samarra izan baita. Orain hobetu da; izan ere, norberaren lanaren erantzukizun-mailaren araberakoa izan beharko luke soldatak, eta hezkuntza erantzukizun handia da.

Evelynek oso argi dauka eta hala adierazi du: "Administrazio publikoaren alaba nauzue, nire karrera osoa publikoa izan baitzen. Nire familiak ez zeukan bitarteko handirik, hala ere, sistema honi esker, batxilergoaren ostean ikasketa teknikoak egin nituen, praktikak ere bai, eta ondoren ikasten jarraitu nuen. Ondoren, ordura arte ikasitakoa beste ikasketa batzuekin lotu nuen eta beste karrera tekniko osagarri batzuk egin nituen. Horri esker, emigratu ostean, nire buruan sinetsi nuen, eta horri esker defenditu dut nire burua bizitzan".



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural



GIZA LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS HUMANAS 2019